

## **2011-11-29ko UDALBATZA OHIZKOA**

Iruran, bi mila eta hamaikagarren urteko azaroaren hogeita bederatzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal taldekoak: Gorka Murua Makuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Josu Yurrita Loitegui, eta Tomas Etxeberria Sarasola.

-EAJ/PNV udal taldekoa: Javier Izaguirre Gomez

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Ainara Mugica Iruretagoyena.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea bazegoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

#### **ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak honako dekretuen berri eman dio udalbatzari:

135 zenbakitik 164 zenbakira bitartekoak.

### **BIGARREN GAIA**

#### **AURREKO AKTEN ONARPENA (2011-07-26; 2011-09-27; 2011-10-27).**

2011ko uztailaren 26ko, eta 2011ko irailaren 27ko eta 2011ko urriaren 27ko ezohiko saioen akten zirriborroak aurkeztu dira, eta aho batez onartu dira aipatutako aktak.

## HIRUGARREN GAIA

### KORPORATIBOAK BILTZEAGATIKO DIETAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.4 artikulua jasotakoaren arabera, "arduraldi eskusiborik edo partzialik ez duten Tokiko udaletako kideek bakarrik jasoko dituzte laguntzak, kide diren kide anitzeko organoen bileretara bertaratzeagatik, bertako udalbatzak adierazitako zenbatekoan.

Hala ere, 2011-06-28ko udaltzabak ez zuen erabakirik hartu udalkideek ordainsariak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubideari buruz, eta horregatik zuzendu nahi dute orain.

Hori dela eta, proposatu dute hartzea honako akordio hau:

1º.-Udalkideek udalbatzako bileretara bertaratzeagatik 60,10€-ko diru-laguntza jaso dezatela, bilera bakoitzeko. Ez dute eskubiderik izango arduraldi eskusiboa edo partziala duten udalkideek.

2º.-Eskuratze horrek atzeraeraginezko izaera izango du ekainaren 11tik.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 75.4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local, "Solo los miembros de las Corporaciones Locales que no tengan dedicación exclusiva ni dedicación parcial percibirán asistencias por la concurrencia efectiva a las sesiones de los órganos colegiados de que formen parte, en la cuantía señalada por el pleno de la misma.

Sin embargo en el acuerdo adoptado con fecha 28-06-2011 por el Pleno de este Ayuntamiento sobre retribuciones, indemnizaciones de Corporativos no se estableció este derecho y ahora se quiere subsanar.

Ante ello, se propone la adopción del siguiente acuerdo:

1.-Aprobar la percepción de asistencias a los Plenos de este Ayuntamiento para los miembros de esta Corporación por importe de 60,10€ por sesión. No tendrán este derecho los corporativos con dedicación exclusiva o parcial.

2.-Esta percepción se establecerá con carácter retroactivo desde el 11 de junio.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

Este acuerdo es definitivo en vía administrativa.

## LAUGARREN GAIA

### **DIRU-LAGUNTZAREN UDAL-ORDENANTZA ALDATZEA, UDALEKO ZERGAK ORDAINTZEN LAGUNTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEKO.**

Orain arte, Udalak diru-laguntzen araudi bat zuen onartuta, udal-zergak ordaintzeko (ura eta zaborrak). Zerga-sisteman aldaketak sartu dira ordea, eta horregatik, horiek berriro onartzea eta Udal honetako diru-laguntzen araudi orokorrean sartzea komeni da.

Era berean, Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak proposamenaren aldeko txostena egin du, 2011ko azaroaren 22an.

Hori dela eta, Udalera bildu direnak aho batez hartu dute honako erabaki hau:

Lehena.- Hasiera batean ontzat ematea Udal honetako diru-laguntzen araudiaren aldaketa.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunei audientzia ematea, 30 egun balioduneko epean.

Hasta ahora este Ayuntamiento tenía aprobado una normativa de subvenciones para el pago de tributos municipales (agua y basura). Los cambios introducidos en el sistema impositivo hacen conveniente aprobarlos nuevamente e introducirlos en la normativa general de subvenciones de este Ayuntamiento.

Así mismo esta propuesta ha sido informada favorablemente por la Comisión Informativa de Servicios Sociales con fecha 22 de Noviembre de 2011.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

Primero.-Aprobar inicialmente esta modificación al Reglamento de Subvenciones de este Ayuntamiento.

Segundo.-Someter el expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados por el periodo de 30 días hábiles mediante Anuncio en el Boletín

Oficial de Gipuzkoa.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, akordioa behin betikotzat joko da, eta indarrean dagoen legedia beteko da.

Akordio hau tramiteko erabakia da.

Tercero.-En el caso de que no se hubiese presentado reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo y se procederá de acuerdo con lo señalado en la legislación vigente.

Este acuerdo es un acto de trámite.

## **BOSGARREN GAIA**

### **2010. EKITALDIKO UDALEKO KONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udalbatzak aho batez erabaki du udal honetako 2010eko ekonomia ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

## **SEIGARREN GAIA**

### **EUSKAL MEMORIA FUNDAZIOAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.**

Euskal Memoria Fundazioak Euskal Memoria egitasmoa gauzatzeko 500 euroko diru-laguntza eskatzen du.

Javier Izaguirre zinegotziak galdetzen du zer den udaleko irizpidea diru-laguntza hau emateko.

Gorka Murua zinegotziak eskaeraren edukian helburua agertzen dela erantzuten dio.

Eta puntua botazioz jarrita emaitza hau lortzen da:

- 7 boto (Bildu) alde

- 1 boto (PNV) abstentzia.

Hori Ikusita alkateak onartutzat ematen du.

Akordia behin betikoa da administrazio bidean.

## **ZAZPIGARREN GAIA**

### **AZAROAREN 25EKO EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkateak mozio hau aurkezten du: "Beste urte betez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Irurako udalak biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

2011a hasi zenetik 7 emakume erail dituzte Euskal Herrian eta milaka dira komunikabideen bitartez jasotzen ditugun kasuen berri. Eraso sexisten inguruko gertakariak eta salaketak egunero entzun ohi ditugun elementuak dira. Herriko jaietan edota jai eremuetan emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexisten ar3agotzea ematen da. Lan eremuan ematen diren sexu jazarpenen datuak kezkatzekoak dira. Gazteriaren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraunarazteaz gain, mutil askok nesken kontrako indarkeria ere baliatzen dute....

Beraz, Euskal Herriko indarkeri sexistaren diagnosis osatu ahal izateko datu zehatzik ez badugu ere; aipaturiko datuak oinarri hartuta, emakumeon kontrako indarkeria gure herriko arazo sozio-politiko nagusia dela ondorioztatu dezakegu.

Instituzioen aldetik, emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartzeko martxan dauden lege, protokolo, ordena eta akordio inter-instituzionalak, partzialak dira eta benetako konpromiso politikotan oinarritutako adierazpena plazaratzea beharrezkoa da.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek:

-Indarkeria aurre egiteko politika integralari dagokionez, mota desberdinetako neurriak hartu beharko ditugu kontutan, besteak beste heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak.

-KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuz.

GONBITEA EGITEN DIE herritar guztiei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Herrian edo eskualdean burutu daitezkeen mobilizazioekin bat egiteko.”

Udalbatzak aho batez onartzen du.

## **ZORTZIGARREN GAIA**

### **TOLOSA OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkateak mozio hau aurkezten du : “Irailean zehar Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak TOLOSALDERAKO OSASUN ARRETA EREDU BERRIA eman die jakitea herritarrei. Proiektu berri honetan, Izaskungo Amaren Anbulatorio publiko eta espezializatuaren itxiera progresiboaren berri ematen da eta espezialitate guztiak Asuncion Klinika pribatu eta ahuldua geldituko da Irura zein Tolosaldean.

Bestetik, Tolosaldeko Osasun sare publikoa da ospitale publiko bat egun ez duen eskualde bakarra eta baldin eta egitasmo hau aurrera badoa izango ez duen Euskal Herriko eskualde bakarra. Tolosaldeak eskualde bezala indar eta pisu demografiko mahikoa du eskualde mailako ospitale bat izan eta herritarrei egokia izango zaien zerbitzu bat eskaintzeko.

Hori guztiagatik mozio hau aurkezten da Irurako udalaren Osoko Bilkurak, honako hau ONARZEN DEZAN:

1.- Eusko Jaurlaritzak aurkezten duen Osasun arreta eredu berria arbuiatzea.

2.- Herritarren osasunez arduratzeko osasun-sistema egokiena publikoa dela eta Tolosaldean osasun-sistema publikoak atentzio osoa izan behar duela aldarrikatzea du Irurako udalak. Baita, lehen arreta zein espezialitateen zerbitzuak, zuzenean osasun zerbitzu publikoak eskaini behar dituela, hauek sistema pribatura desbideratu gabe aldarrikatzen du.

3.- "Tolosaldea Osasun Publikoaren alde" ko koordinakundeak Azaroaren 12an Tolosan egingo duen manifestaldiari Irurako Udalak bere atxikipena ematea."

Puntua botazioz jarrita emaitza hau lortzen da:

- 7 boto (Bildu) alde.

- 1 boto (PNV) abstentzioa.

Eta alkateak onartutzat ematen du.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

## **BEDERATZIGARREN GAIA**

### **EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Alkateak mozio hau aurkezten du: "Pertsonak, hizkuntzak eta kultura guztiak berdinak dira duintasunean. Guztiak behar dute berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera, mendetasunik gabe bizitzeko. Horretarako, hizkuntza bakoitzari dagozkion nagusitasuna eta iraunkortasuna bermatu behar zaizkio bere lurralde osoan.

Euskaraz bizi den Euskal Herria gauza ona da denontzat. Ez du arriskuan jartzen euskaldunaren erdara(k). Ezta gaztelania eta frantsesaren garapen osoa erre euren lurralde historikoetan. Espainiak eta Frantziak ordea, gaztelania eta frantsesa inposatzen dituzte Euskararen <herrian eta trabak jartzen, euskaraz bizitzeko. Traba politikoak, juridikoak, ideologikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.

Euskal Herrian ireki den aro politiko berri honetan, hizkuntza gatazka konpontzea, lehenetsunezkoa da. Hitz egin behar da hizkuntza asimilazioaz. Euskal Herrian gertatzen den gaztelania eta frantsesaren hedatze sozial

izugarriaz. Bereizi behar dira, zein den hizkuntza horien zati onuragarria, - euskal herritarrentzat, euskaldunentzat eta Euskal Herriarentzat-, eta zein zati asimilagarria. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Herritarrok gara euskara erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko eragile, babesle eta berme. Horrenbestez, ezinbestekoa da herri gogoia indartzea. Euskararen alde egotetik “euskaraz bizi nahi dut” era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitetik “euskaraz bizi nahi dut” era pentsamendu aldatzea eta erdaraz egitetik “euskaraz egitera” portaera jiratzea eta eguneroko ohitura bihurtzea.

Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskarazko elebitasuna praktikan jartze eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

1.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen euskalduntzea bultzatu eta bermatzeko.

2.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenen langileen lehen hitza beti euskaraz izan dadin.

3.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du bere barne funtzionamendua euskaraz izan dadin.

4.- Udal honek udalerrri honetako euskal komunitateak dituen hizkuntza eskubide indibidual eta kolektiboak bermatze aldera, gure herrian eta atal zein arlo ezberdinetan, euskaraz bizitzeko eskubidea helburu duen plangintza integrala garatzeko konpromisoa hartzen du. 2011-12-03an EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN.”.

Udalbatzak aho batez onartzen du.

Akordioa behin betikoa da administrazio bidean.

## **HAMARGARREN GAIA**

**EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE MOZIOA ONARTZEA,  
HALA BADAGOKIO.**



Alkateak mozio hau aurkezten du: “Une historiko bizi dugu Euskal Herrian ETA erakundeak borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin, ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da. Azken hamarkadetan bizi izan dugun konfrontazio armatua behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eskenatokiaren atea ari dira irekitzen.

Gernikako Akordioan hitzartutakoari jarraiki, eta Aieten Nazioarteko Komunitateak zabalduko mandatuaren norabidean, ETArek erabakiak, gatazka politikoa, bake bidera eramateko aukera baten aurrean jarri gaitu. Normalizazio politikora bidean eman beharreko urratsetan, besteak beste, euskal preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan, ezinbestekoa da, “Euskal preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe-politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da-eta. Era berean, honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan, gatazka politikoak eragindako preso eta iheslari bat bera ere egon ez dadin: Preso guztiak Euskal Herrira ekartzea, dispertsioarekin amaituz, Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea. Epaituak izateko zain dauden preso prebentiboek behin-behineko askatasuna ematea, Legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei, baldintzapeko askatasuna ematea, Legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketarik eta arbitrariotasunik gabe eta azkenik, Zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legedia indargabetzea”.

Euskal gizarteak urte asko daramatza, preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoek aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, estatu espainiar zein frantsesari, beren legea betetzeko eskatzen.

Munduan eman diren prozesu politiko desberdinetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Era berean, konponbide politikoaren baitan, presoek ere parte izan behar dutelarik. Ziklo bat behin betikoz itxi eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria indarrez irekitzeko.

Azken asteetako hitz eta ekintzei begira jarriz, Madril eta Parisetik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispertsioak bere horretan jarraitzen du. Senitartekoek milaka kilometro egiten jarraitzen dute. Hamarkada euskal presok, Parot Doktrinaren ondorioz, hil arteko zigorra

betetzen jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat presok baldintza kaxkarretan jarraitzen dute. Egoera hau errotik aldatzea eta atzerapenik gabeko urratsak ematea ezinbestekoa deritzogu.

Hori guztia kontuan hartuko, honako adierazpen hau aurkezten dugu, IRURAKo Udaleko Osoko Bilkura honetara, eztabaidatua eta onartua izan dadin:

1.- Udal honek, bizi dugun aukera historiko honen aurrean, Euskal Preso Politikoen eskubideen errespetua eskatzen du. Hala nola, besteak beste, dispertsioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea.

2.- Udal honek datorren urtarrilaren 7an Euskal Preso Politikoen eskubideen alde burutuko den Manifestaldiarekin bat egiten du.

3.- Norabide horretan eta mobilizazio horren harira, abenduaren 16ean udal honetako hautetsiek baraua egin eta eguerdiko 12tan kontzentrazioa burutuko dugu.

4.- Gure udalerriko eragile guztiei deialdia luzatzen diegu urtarrilak 7ko mobilizazioarekin bat egin eta beronen eskutan dagoena egin dezaten bere ekimen kultural, sozial edo kirolaren alorrekoen ordutegiak berau indartze aldera kokatu ditzaten.

5.- Herritarrei deialdi zabal eta anitza luzatu nahi diegu ezberdintasun politiko guztien gainera giza eskubideen alde urratsa eman eta herri honek inoiz ezagutu duen mobilizaziorik handiena denon artean osatu dezagun.”

Gaia botoaz jarrita emaitza hau lortzen da:

- 7 boto (Bildu) alde.
- 1 boto (PNV) abstentzioa

Alkateak onartutzat ematen dio.

Galdera eskarien atalaren aurretik, ondorengo gaiak tratatu dira, presazko egoera adierazi baitute aho batez batzarkideek, eta hauek, udalbatzarraren partaideen zilegizko gehiengo osoaren aldeko botua osatzen baitute:

## HAMAİKAGARREN GAIA

Lankidetzeta-hitzarmena aurkezten da, Irurako Udala eta Tolosaldeko garapen Iraunkorreko Udal Zerbitzuak S.L.-artean. Tolosaldeko Udalerrien Tokiko Agenda 21aren jarraipenerako eta Tokiko Ekintza Planen sustapenerako.

Eta hori ikusita, aho batez hau onartzen da:

1º.-Hitzarmena onartzea.

2º.-Ainhoa Ugalde Gorostiagari, Irurako udaleko alkate-lehendakari andreaki, hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du.

Gai honetan Ainara Mujika Iruretagoiena zinegotzia bertaratzen da.

## HAMABIGARREN GAIA

**GALDE-ERREGUAK.** Ez da ezer aurkezten.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:45etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta idazkari gisa dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA